

ERANSKINAK

1. ERANSKINA: ELKARRIZKETEN BAIMEN-ORRIAK

Lehen Hezkuntzako Gradua

Gradu Amaierako Lana



Irakasle Agurgarri hori:

Esther Zarandona de Juan naiz, UPV/EHUko Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Sailaren irakaslea eta Haizea Ruiz de Loizaga Sarriaren Gradu Amaierako Lanaren tutorea. Ikasle honek Practicum-ean egiten ari den zenbait behaketa eta dokumentuen azterketa erabiltzeko baimena eskatzera natorkizu, aipatu lana egin ahal izateko, eta baita zuri elkarrizketa bat egiteko ere, beti ere zuen eskola ados egongo balitz. Helburu nagusia hau da: ikaslea hezkuntzari buruzko ikerketa kualitatiboaren prozesu batean murgiltzea, prozesu horren urrats guztiak ezagutzea eta ikerketa aurrera ematea. Lan honen gaia ondoko hau da: “Heriotzaren eta doluaren trataera Lehen Hezkuntzan”. Eskolan haurrei gai eta egoera hauekin laguntzeko prozesuen gaineko ezagutzan sakontzea da helburua, horretarako errealitatearen azterketa kualitatiboa eginez.

Elkarrizketaren gidoia aldeztatik aurretik ezagutuko duzu. Elkarrizketaren edukia eta hartuko diren beste datuak, ez dira beste ezertarako erabiliko, bakar bakarrik GrAL egiteko. Bestalde, partaide guztien identitatea -eskola, irakaslea eta ikasleak-, konfidentziala izango da eta zuk nahi izanez gero ikasleak saio bat prestatuko du lanaren emaitzen berri zuri emateko (edo eskolari nahi baduzue). Ados bazaude, sinatu mesedez behean eskatzen dizuguna.

Argibide gehiago behar badituzu behean agertzen den e-postan eta telefonoetan aurkituko nauzu erantzuteko prest.

Eskerrik asko zure arretagatik



Leioa, 2017-02-08

Sin.: Esther Zarandona de Juan-ek

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola

Leioako campusa, Sarriena z/g

Leioa- 48940

esther.zarandona@ehu.eus

Tf.: 946014600/639368288

* Ikerketak egiteko kode etikoak eskatzen duenaren arabera, hala nahi izanez gero, ondoko hau sinatzea eskatzen dizugu: eskoletako behaketak eta elkarrizketa zertarako diren ezagutzen duzula eta baimena ematen duzula datu hauek aipatu eginkizunerako eta baldintzetan erabiltzeko.

Sin.:

Data:

Lehen Hezkuntzako Gradua

Gradu Amaierako Lana



Zuzendari Agurgarri hori:

Esther Zarandona de Juan naiz, UPV/EHUko Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Sailaren irakaslea eta Haizea Ruiz de Loizaga Sarriaren Gradu Amaierako Lanaren tutorea. Ikasle honek Practicum-ean egiten ari den zenbait behaketa eta dokumentuen azterketa erabiltzeko baimena eskatzera natorkizu, aipatu lana egin ahal izateko, beti ere ikasgelako irakaslea ados egongo balitz. Helburu nagusia hau da: ikaslea hezkuntzari buruzko ikerketa kualitatiboaren prozesu batean murgiltzea, prozesu horren urrats guztiak ezagutzea eta ikerketa aurrera ematea. Lan honen gaia ondoko hau da: “Heriotzaren eta doluaren trataera Lehen Hezkuntzan”. Eskolan haurrei gai eta egoera hauekin laguntzeko prozesuen gaineko ezagutzan sakontzea da helburua, horretarako errealitatearen azterketa kualitatiboa eginez. Bide honetan elkarrizketak ere egingo ditu bere lanean parte hartzeko prest dauden eskolako partaide batzuekin.

Datuak, ez dira beste ezertarako erabiliko, bakar bakarrik GrAL egiteko. Bestalde, partaide guztien identitatea -eskola, irakaslea eta ikasleak-, konfidentziala izango da eta zuk nahi izanez gero ikasleak saio bat prestatuko du lanaren emaitzen berri zuri emateko (edo eskolari nahi baduzue). Ados bazaude, sinatu mesedez behean eskatzen dizuguna.

Argibide gehiago behar badituzu behean agertzen den e-postan eta telefonoetan aurkituko nauzu erantzuteko prest.

Eskerrik asko zure arretagatik

Leioa, 2017-02-08

Sin.: Esther Zarandona de Juan-ek

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola

Leioako campusa, Sarriena z/g

Leioa- 48940

esther.zarandona@ehu.eus

Tf.: 946014600/639368288

* Ikerketak egiteko kode etikoak eskatzen duenaren arabera, hala nahi izanez gero, ondoko hau sinatzea eskatzen dizugu: eskoletako behaketak eta elkarrizketa zertarako diren ezagutzen duzula eta baimena ematen duzula datu hauek aipatu eginkizunerako eta baldintzetan erabiltzeko.

Sin.:

Data:

2. ERANSKINA: ELKARRIZKETEN KODEAK

Elkarrizketak transkribatzean, elkarrizketatutako sujetu bakoitzari kode bat esleitu zaio.

Kode horiek honakoak dira:

- Elkarrizketa erdi-egituratua irakasle bati: IA
- 1. elkarrizketa ez-formala irakasle bati: IB
- 2. elkarrizketa ez-formala irakasle bati: ID
- 3. elkarrizketa ez-formala Zuzendari Pedagogikoari: ZP
- 4. elkarrizketa ez-formala irakasle bati: IF
- 5. elkarrizketa ez-formala irakasle bati: IG
- 6. elkarrizketa ez-formala irakasle bati: IH
- 7. elkarrizketa ez-formala irakasle bati: IJ
- 8. elkarrizketa ez-formala irakasle bati: IK

3. ERANSKINA: ELKARRIZKEN GIDOIA

Honakoak izan dira elkarrizketa egituratuan egindako galdera nagusiak:

- Noizbait zure ikasleren batek galera bat sufritu du? Zer egin duzu egoera horretan?
- Zeintzuk izan dira zure bizipenak heriotzaren gaia lantzean edo ikasleren bat dolu prozesuan laguntzean?
- Zeintzuk izan dira zure zailtasunak heriotzaren gaia lantzean edo ikasleren bat dolu prozesuan laguntzean? Eta erraztasunak?